

## JOKABIDE KODEA

Danobat Koop. E.n gardentasunaren, partaidetzaren eta efizientziaren printzipioek eraginda jarduten dugu, pertsoneri, inguruneari eta gizarteari funtsezko balioak transmititzeko.

Ditugun trebakuntza handiko profesionalen konpromisoa eta inplikazio aktiboa dira gure arrakastaren oinarria. Etengabeko ikaskuntza ezinbesteko alderdia da gure lantaldean. Gure gaitasunak eta ezagutzak etengabe hobetzen ari gara, beti urrats bat aurrerago egoteko.

### 1. HELBURUAK

Danobat Koop. E.k hasieratik sustatu du, bere lehentasunetako bat den aldetik, portaera zintzoa izatea bere jardueran harremanak dituenekin. Kooperatibaren funtzionamendua gidatzen duten printzipioak, kooperatibaren kultura korporatiboaren parte dira.

Jokabide kode honen xedea da printzipio horiek laburbiltzea eta idatziz jasotzea, kooperatibaren eta haren profesional guztien jarduna orientatzeko, eta, horretarako, oinarrizko jarraibide batzuk eskaintzea, kooperatibaren jarduna une oro bat etor dadin printzipio horiekin.

Kode honetako klausulak betetzea oinarritzen da, lankidetzan, konfiantzan, errespetuan eta hirugarrenen eta Danobat Koop. E-ren arteko ohar eta komunikazio guztien isilpeko tratuan.

### 2. DANOBATEN MISIOA

Merkatuari lehiakideekiko erantzun berezia eskaintzea, balio handiena emango dioten soluzioetan oinarrituta, teknologia aurreratueneko produktuak eta mekanizazio eta fabrikazio prozesuarekin lotutako zerbitzuak konbinatuz, produktuaren bizi ziklo osoan.

Danobaten kudeaketa, izaera berritzaile nabarmeneko, bi ardatzetan egituratuko da:

- Bezeroa da negozioaren hazkunde iraunkor eta errentagarriko behar diren baliabideak sortzeko iturri bakarra, eta, horretarako, mundu mailan lidergo posizioa lortu eta mantendu ahal izango duten sektore eta merkatu estrategikoak hautatuko dira, soluzio aurreratuak garatuz sektoreko bezero liderrekin lankidetzan.
- Pertsonak elementu bereizle eta lehiarako abantaila iraunkor sortzaile bakar gisa; horretarako, Mondragoneko Kudeaketa Kooperatiboaren Eredua aplikatuko da, Danobaten historia eta bertako pertsonen nahiak bateratzen baititu.

Horri guztiari esker, enpresaren emaitzak hobetuko dira eta Danobaten lan egiten dugun pertsonen gogobetetasuna hobetuko dira, eta aberastasuna eta enplegu kooperatiboa sortzen lagunduko da, ingurunea eta ingurumena etengabe errespetatzeko jarrerarekin.

Misioarekin batera, egunerokotasunak balio eta portaera batzuk ditu. Labur esanda, hauek dira balio eta portaera horiek:

### **3. DANOBATEN BALIOAK**

Pertsonengan oinarritzen den proiektu sozio-enpresarial baten alde egiten dugu, nortasun kooperatiboa duten eta konprometituta dauden pertsonak eta presente gauden herrialdeetan aberastasuna eta enplegua modu iraunkorrean eta jasangarrian sortzeko helburua partekatzen dutenak abiapuntutzat hartuta. Horretarako, honako balio hauek finkatu dira:

#### **BEZEROAREN ANAKO ORIENTAZIOA**

- Zerbitzu azkarra, zuzena ematea eta bezeroaren premietara egokituta.
- Kalitatearekin eta fidagarritasunarekin erantzutea.
- Berritzea eta egokitzea, neurrirako irtenbideak eskainita, bezeroa inspirazio iturritzat hartuta.
- Proiektuarekiko konpromisoak norberaren konpromisotzat hartzea.
- Hurbiltasuna erakustea: proaktibitatea, entzutea eta ulertzea.
- Feedbacketik ikastea eta horretan oinarrituta hobetzea.
- Sektorearen/merkatuaren joerak zaintzea (bezeroak eta lehiakideak).
- Kateko kide guztiak aintzat hartzea proiektuaren erabakietan.

#### **BERRIKUNTZA GLOBALA**

- Sormena sustatzea, egiten dena albo batera utzita eta aldaketak proposatuta.
- Egiten dena ikertzea / behatzea (kanpoan/barruan).
- Aldaketa premiei aurrea hartzea, epe ertaina/luzea bistaratuta.
- Arriskuak baloratzea eta bere gain hartzea.
- Aldaketa proposamenen aurrean aurreiritziak saihestea.
- Partekatzea, elkarlanean aritzea (kanpoan/barruan).
- Ez amorerik ematea, kontrako egoeretan.

#### **AUTOEXIJENTZIA / AUTOLIDERGOA**

- Etengabeko hobekuntza bilatzea, autokritikaren eta ikaskuntzaren bitartez.
- Iniziatiba izatea, traxionatzea, gidatzea.
- Kexa mahaira ekartzea, proposamen batekin batera, autoinplikazioa bilatuta.
- Erantzukizunak norbere gain hartzea. Eskuordetzea eta erabakiak hartzea.
- Zorroztasunez eta fidagarritasunez lan egitea, konpromisoak betez.
- Garatzeko interesa edukitzea.

## PERTSONAK ERDIGUNEAN

- Pertsoneri garatzen laguntzea, jarrerei dagokienez (pertsonei) eta gaitasunei dagokienez (profesionala).
- Lana eta ahalegina aitortzea.
- Autonomia sustatzea, hutsegiteak onartuta, pertsonei haztea helburu izanda.
- Eragindakoei azaltzea eta ezagutaraztea hartuko diren erabakien gaineko informazio garrantzitsua; bai erabakiak hartu aurretik, bai ondoren.
- Pertsonei bakoitzari denbora bat eskaintzea, proiektuarekin bat egiten saiatzeko, pertsonei kezka azaleratzen lagunduta eta kezka horiek aintzat hartuta.
- “Kritika” eraikitzaileak egitea, pertsonei jarduna hobetzea bilatuta.
- Adeitasunez eta errespetuz tratatzea gainerako lankideak.

## TALDE LANA/LANKIDETZA

- Entzuteko, parte hartzeko, partekatzeko, errespetatzeko eta zintzoa izateko jarrera edukitzea.
- Erabakiak hartzeko eta zereginak gauzatzeko autonomia eta erantzukizuna beste batzuen esku uztea.
- Laguntza eskatu eta eskaintzea, beldurrik gabe.
- Taldearen helburuekin eta erabakiekin konprometitzea.
- Erabakiak hartzea, erabaki adostuak eta askotariko ikuspegiekin hartuak izaten ahaleginduta.
- Taldeak bultzatzea lidergotik, helburuak, erantzukizunak eta arriskuak ezarrita.
- Egindako lana baloratzea, aitortza eta hobetzea bultzatuta.
- Konfiantzazko giroa sortzea.


## GIZARTEAREN ERALDAKETA

- Gizartean eta lanean integrazteko zailtasunak dituzten pertsonei kontratazioa bultzatzea.
- Proaktiboak izatea gizarteratze handiagoa bilatuta.
- Zailtasunak dituzten kooperatibei laguntzea, iraunkorrak izan daitezen bai birmoldaketekin, bai birkokapenekin.
- Pertsonei jarduera solidarioetan euren borondatez aritzera bultzatzea.
- Kooperatibari lehentasuna ematea bazkidearen interes partikularraren gainetik, kooperatibaren epe luzeko iraunkortasuna bermatzeko eta horrela gizarteari egiten dion ekarpenari eusteko.
- Danobat emakume eta gizonentzako enpresa irekia eta erakargarria bihurtzea, aukera berdintasunekin.
- Kooperatibismoa bultzatzea, eraldaketa sozialerako bide gisa.

## 4. ANTOLAKETA EGITURA

Danobaten egitura, funtsean, bezeroaren inguruan garatzen da, bere beharrei erantzuten dieten negozioekin edo filialean, zuzendaritza nagusiak, Kontseilu Errektoreak aukeratu duenak, zehaztutako zuzendaritza kontseilu batek zuzenduta.

Kontseilu hori, era berean, Batzar Nagusiak aukeratu du, eta bertan zehaztuko dira Zaintza Batzordeko eta Errekurtsoen Batzordeko kideak, aurrekoen lanak gainbegiratzen dituztenak.



## 5. APLIKAZIO EREMUA

### 5.1. Kodea aplikatzen zaien pertsonak

Danobat Koop. E. enpresaren jokabide kodearen hartzaileak dira, lehenik eta behin, Danobat Koop. E. enpresan administratzaile, zuzendari, negozio bazkide, bazkide langile eta besteren konturako langile gisa lan egiten duten guztiak; horiek guztiek kode horretan ezarritako estandarretara egokitu beharko dute beren jokabidea.

Era berean, jokabide kodearen hartzaile izango dira Danobat Koop. E. ren interesean edo haren izenean jarduten duten ordezkariak, mandatariak, agenteak eta bitartekariak.

Pertsona edo erakunde horiek kodearen estandarretara egokitu beharko dute beren jokabidea, betiere Danobat Koop. E-ren interesak ordezkatzan edo kudeatzen badituzte.

## 5.2. Monitorizazioaz arduratzen den kontrol egitura

Kodea betetzen dela monitorizatzea Pertsonen Arloko zuzendariaren ardura da, eta haren zereginak honela laburbiltzen dira:

- Kodea Danobat Koop. E.ko pertsona orori eta interesgarria den orori behar bezala jakinarazten zaiela ziurtatzea.
- Kodea berrikustea.
- Konfidentziasuna mantentzea.

Jokabide kode hau Danobat Koop. E.ko langile guztiei jakinaraziko zaie, langilearen atariaren bidez.

## 5.3. Langileentzako konpromisoa

Kodea irakurtzea eta bertan jasotako printzipioen arabera jokatzeko eskatzen zaie langile guztiei.

# 6. JOKABIDE ARAU OROKORRAK

## 6.1. Printzipio Orokorra: indarrean dagoen araudia betetzea.

Lanbide jarduerak garatzean, Danobat Koop. E.k eta bertako edozein pertsona garrantzitsuk egunean egon beharko dute eta indarrean dagoen legeria bete beharko dute. Legea ez betetzera behartuz edo bultzatuz gero, berehala jakinarazi beharko dio gaia bere arduradunari edo Pertsonen arloko arduradunari.

## 6.2. Ustelkeriaren eta eroskeriaren aurka

Hertsiki debekatuta dago hirugarren aldeengandik edozein opari jasotzea edota hirugarren aldeei eskaintzea, baldin eta, bere balioa dela eta, kortesia gainditzen duen opari gisa interpreta badaiteke eta enpresako edozein langilerentzat aldeko tratamendua lortzeko egiten bada.

## 6.3. Jokabide desegokiak jakinaraztea

Jokabide kode honekin bat ez datozen jardunbide edo praktika txarrak ikusten dituen edonork horren berri eman diezaioke bere arduradunari edo Pertsonen arloko arduradunari.

Danobat Koop. E.k bermatzen du jasotako erreklamazioak konfidentzialtasun osoz tratatuko direla.

## **7. TRANSAKZIOAK ETA KONTROL ESPARRU OROKORRA**

Danobat koop. E-ren intereserako egiten den edozein transakziok aplikatu beharreko indarreko legeria bete behar du, eta ikuskatzeko modukoa izan behar du.

Danobat Koop. E.k barneko auditoreekin edota kanpoko eragileekin partekatzen duen informazio orok eguneratuta egon behar du, egiazkoa eta zorrotza izan behar du, langile egokiek egin behar dute eta indarrean dagoen legeria bete behar du.

## **8. PERTSONAK**

### **8.1. Enpresan sartzea**

Danobat Koop. E.ko langileak eta hirugarren aldeak indarrean dagoen legeriaren arabera kontratatu beharko dira.

Aukeratutako bazkidegaiak, kooperatiban sartu aurretik, honako dokumentu hauek formalizatuko ditu:

- Sozietate kontratua, probaldia gainditzearen eta ezarritako konpromiso ekonomikoak betetzearen baldintzapean.
- Lagun-Aro Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundean edo Gizarte Segurantzari alta ematea.
- Pertsonaleko Departamentuak eskatzen duen beste edozein dokumentazio administratibo.

### **8.2. Soldata**

Danobat Koop. E.k langileen hileko soldaten eta aparteko orduen erregistroa mantendu beharko du, baita aldi baterako langileena ere.

### **8.3. Lanaldia**

Kontseilu Errektoreak urte natural bakoitzerako finkatuko du kooperatiban lan egin beharreko ordu-kopurua.

Kontseilu Sozialak txostena egin ondoren, Gerentziaren eskumena da urte osorako urteko egutegia eta lan-ordutegiak finkatzea, Kontseilu Errektoreak finkatutako irizpideen arabera.

#### 8.4. Soldata baldintzak

Danobat Koop. E.k gutxienez lanbide arteko gutxieneko soldata ordaindu beharko die bere langileei, indarrean dagoen legeriaren arabera. Soldatak modu erregularrean ordaindu beharko dira, egindako lanaren eta indarreko legediaren arabera.

#### 8.5. Aparteko orduen ordainketa

Danobat Koop. E-ren langileen eta haren hirugarren aldean aparteko orduak, legezko eskakizunen arabera konpentsatu beharko dira. Une bakoitzean indarrean dagoen barneko lan araudiaren arabera.

#### 8.6. Baimenak

Danobat Koop. E.ko langileek eta haren hirugarren aldeek indarrean dagoen legediaren arabera baimenak izan beharko dituzte (adibidez, gaixotasunagatiko, oporregatiko, amatasunagatiko, jai ofizialagatiko eta abarregatiko baimenak).

#### 8.7. Onurak

Danobat Koop. E.k dagozkien onurez hornitu beharko ditu bere langileak.

#### 8.8. Haurren lana

Danobat Koop. E.k eta bere hirugarren aldeek ez dute haurrik kontratatuko, eta langile guztien jaiotze data jasotzen duen erregistro bat izango dute.

*\* C138-Gutxieneko adinari buruzko 1973ko Hitzarmenaren arabera, haurtzat hartzen da 15 urtetik beherako pertsona oro, tokiko legeek adin handiagoa edo derrigorrezko eskolatzea jotzen duten kasuetan izan ezik, kasu horietan adin nagusitasuna aplikatuko baita.*

#### 8.9. Nahitaezko lanak

Danobat Koop. E.k ezin izango ditu bere langileak nahitaezko lanak egitera behartu, eta ez du indarra erabiliko (zigor mehatxua, etab.).

*\* Nahitaezko lantzat hartzen da zigor edo norberaren gauzak (NANA, pasaporte, eta) konfiskatzeko mehatxupean egiten den lan oro, pertsona horrek bere borondatez horretarako prestasuna agertu ez badu.*

#### 8.10. Diskriminazioa

Danobat Koop. E.k ezagutu eta onartzen ditu herrialde bakoitzean dauden kultura desberdintasunak eta aplikatu daitezkeen estandarrak. Enplegu baldintzek lanpostua betetzeko banakako profilaren arabera izan behar dute, inoiz ez ezaugarri edo iritzi

pertsonalen araberakoak. Beraz, ez du bereizkeriarik egingo kontratazioan, ordainsarrietan eta onuretan, sustapenean, diziplinan eta kontratuaren amaieran, arraza, erlijioa, sexua, egoera zibila, adina, afiliazio politikoa, jaioterria, sexu orientazioa edo legez debekatutako beste edozein arrazoi dela medio.

Era berean, Danobat Koop. E.k genero berdintasunerako plan bat diseinatu eta ezarri du, eta esplizituki aitortu du emakumeen eta gizonen arteko aukera eta tratu berdintasuna eskubide bat dela, eta berdintasuna gizarte erantzukizun korporatiboaren oinarri gisa ulertzen duela.

### 8.11. Gatazken kudeaketa

Kooperatibak onartzen du pertsona guztiak eraginkortasunez babestuta egon behar direla laneko segurtasunari eta osasunari dagokienez, eta kontuan hartuta gatazka, indarkeria edo diskriminazio modalitate guztiak arrisku psikosoziala direla, konpromisoa hartzen du pertsonen arteko gatazkak sortzen dituzten portaeren agerpena prebenitzeko, portaera horiek garaiz identifikatzeko eta modu egokian desagerrarazteko. Horretarako, beraz, konpromisoa hartzen du antolaketako arriskurik ez duen lan ingurune bat bultzatuko duela, non gizakien duintasunarekiko errespetua berez balioztat hartuko den.

Horretarako, kooperatibak konpromisoa hartzen du horrelako jokabideen ondorioei aurre egiteko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzeko, bai eta jokabide horiek prebenitzeko eta erakundearen maila guztietan giro fisiko eta psikosozial osasungarria sustatzeko antolaketari, prestakuntzari eta informazioari lotuta behar diren neurriak hartzeko ere.

Hori guztia dela eta, Danobat Koop. E.k jarduketa prozedura egokia definitu du egoera horiek sortzen direnean konpontzeko.

Egoeraren kalteak pairatu edo egoeraren berri duen langile orok salatu ahal izango ditu jazarpen edota indarkeria egoera horiek, honako hauei jakinarazita, hain zuzen ere:

- Kooperatibaren lehendakariari.
- Kooperatibaren gerenteari
- Kooperatibaren Giza Baliabideen zuzendariari
- Enpresa medikuari

### 8.12. Langileen eskubideak eta betebeharrak

#### **Eskubideak**

- Lanpostua benetan betetzeko eskubidea.
- Lanean mailaz igotzeko eta lanbide heziketan sartzeko eskubidea.



- Enplegua dela-eta bereizkeriarik ez pairatzeko eskubidea, ez zuzenean, ez zeharka.
- Funtsezko beste eskubide bat da langilearen intimitatea errespetatzea eta langilearen duintasuna zaintzea.
- Soldata garaiz kobratzeko eskubidea, dela hitzarmen kolektiboan lege ezarritakoa, dela lan kontratuan hitzartutakoa.
- Lan kontratutik eratorritako ekintzak norberak bakarka gauzatzeko eskubidea.

### **Betebeharrak:**

- Lanpostutik eratorritako betebeharrak betetzea, eta enpresarekin fede onez jardutea.
- Dagozkion segurtasun eta higiene neurriak arduraz betetzea.
- Norberaren arduradunen aginduak eta jarraibideak betetzea.
- Enpresaren jarduerarekin lehian ez aritzea, Legeak ezarritako baldintzetan behintzat.
- Ahal den neurrian, enpresaren produktibitatea hobetzen laguntzen saiatzea; horretarako, arduraz jokatzuz beti, enpresak ondo funtziona dezan.
- Lan kontratuaren ondoriozko betebeharrak betetzea.

## **9. INGURUMENAREKIKO ETA HAZKUNDE IRAUNKORRAREKIKO KONPROMISOA**

Danobat Koop. E-ren misioa da balioestea zein garrantzitsua den gure bezeroak kalitatezko produktu eta zerbitzuekin asetzea, pertsoneri ahalik eta bizitza estandarrik altuenak eskainiz eta **etengabe gure ingurumena errespetatuz**.

Ingurumena errespetatzeko konpromiso horren barruan, Danobatek ISO-14001 arauarekin bat datorren Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat dauka ezarrita 2002tik, eta, gainera, 2016tik, ISO-50001 Arauaren pean ziurtatutako Energia Kudeatzeko Sistema bat.

Bi sistemak etengabeko hobekuntzaren filosofian oinarritzen dira, eta gure ingurumen politikak arautzen ditu. Horren harira, honako konpromiso eta jarduteko printzipio orokor hauek nabarmentzen ditugu:

- Hazkunde iraunkorra bilatzen dugu, gure eguneroko jardueretan ingurumena errespetatuz, gizarte oparoa, justua eta osasungarria lortzeko, bai egungo belaunaldientzat, bai etorkizunekoentzat.
- Aplikagarri zaigun ingurumen legeria guztia betetzen dela ziurtatzea.

- Energia eta ingurumen arloetan etengabeko hobekuntzarako helburuak eta xedeak ezartzea
- Ahal den neurrian produktu kimikoen erabilera eta substantzia edo igorpen kutsatzaileen sorrera murriztea.
- Energia eraginkortasunari eta Ingurumenaren errespetuari lotutako irizpideak kontuan hartzea gure produktuen diseinuan eta garapenean, bai eta ekipamendu eta zerbitzu berriak erostean ere.
- Ingurumena babestea, beti kutsaduraren prebentzioa printzipiotzat hartuta eta gure jarduerak ingurumenean eragiten dituen kalteak ahalik eta txikienak izan daitezen saiatuta.
- Gure ur aztarna minimizatzea, uraren erabilera arduratsua eginez.
- Gure pertsonak ingurumenarekin sentsibilizatzeko behar diren prestakuntza, informazioa eta komunikazioa bermatzea.

Konpromiso horiek Zuzendaritzaren lidergoa eta gure bazkide eta langile guztien inplikazioa eta lankidetzat dute.

Gure Kudeaketa Sistemaren ziurtagiriak eta gure Politika eskuragarri daude hala eskatzen digun edozein alderdi interesdunentzat.

## **10. LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Langileen eta laguntzaileen ongizatea eta segurtasuna bermatzeko, Danobat Koop. E.k konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

- Lan baldintza seguruak eta osasungarriak ahalbidetuko dituzten ekipamenduak eta instalazioak ematea.
- Beren jarduerari berez dagozkion segurtasunik ezak eta arriskuak proaktiboki eta langileen parte hartzearekin identifikatzea eta ebaluatzea, desagerrarazteko edo murrizteko xedearekin.
- Segurtasun eta osasun maila handia lortzea lanean, erakundeko kide guztientzat, arriskuen prebentzioaren bitartez, osasunari egiten zaizkion kalteak minimizatuz eta osasuna zainduz.
- Enpresa osasuntsuaren ohiturak bultzatzea, arreta berezia eginez langileen giro psikosozialari eta osasun integralari.
- Langileei kontsulta egitea eta laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistema planifikatzen, gauzatzen, ebaluatzen eta hobetzen aktiboki parte har dezaten sustatzea.

## 11. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Danobatek bere bezeroekiko harremanean kalitate konpromisoa sustatzen du. Bezeroarenganako orientazioa da balio nabarmenetako bat, eta, beraz, behar diren neurriak ezarriko ditu kalitate politika langile guztiek egiten dutela bermatzeko.

Langile guztiek zintzoki jardun beharko dute fabrikatzen ditugun produktuekin eta ematen ditugun zerbitzuekin, hurbiltasunean, konfiantzan eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako harremanen garapenean kalitate eta bikaintasun maila handieneko irtenbideak ematea helburu hartuta.

Zentzu horretan, bezero guztiak errespetuz, zuzen, zintzo eta Danobaten funtsezko printzipio eta balioekin bat etorri tratatuko dira.

Bezeroekiko harremanak eraginkortasunean, hurbiltasunean eta profesionaltasunean oinarritu behar du, eta haien eskariak entzutean sentsibilitate berezia izan behar dugu beti.

## 12. HORNITZAILEEKIKO HARREMANAK

Danobat Koop. E.k harreman sendoak sustatuko ditu bere hornitzaileekin eta enpresa laguntzaileekin, konfiantzan, kalitate gorenaren eskakizunean, gardentasunean, etengabeko hobekuntzaren bilaketan eta elkarrekiko onuran oinarrituta, berrikuntza eta garapen jarduerak bultzatuz.

Harreman horiek bi aldeek helburuak lortzea erraztuko duen lankidetzaren esparru batera egokitu beharko dira; beraz, tratamenduak berdinen artekoa izan beharko du, eta betiere lege esparruaren barruan.

Danobat Koop. E.k produktuak/zerbitzuak hornitzen dizkieten enpresek beren jardueraren esparruaren etikaren esparruan garatzen dutela zainduko du.

Danobat Koop. E-ren eta haren hornitzaile edo kanpo kolaboratzaileen artean ezarritako akordioek etikaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko estandar jakin batzuk betetzeko jarraibideak sustatuko dituzte, eta konpromisoa hartuko dute giza eskubideekiko errespetuarekin, lan behartuak eta derrigortuak ez erabiltzearekin, haurren lana desagerraraztearekin, ingurumena errespetatzearekin eta lan arloko diskriminazioa desagerraraztearekin.

### **13. KONPROMISO SOZIALA**

Konpromiso sendoa dugu gizartearekin, eta hainbat ekimen tarteko elkarlanean ari gara gure enpresa jardueraren eremu geografikoan ekonomia soziala sustatzen eta laguntzen, heziketa eta prestakuntza sozio-kooperatiboa eta profesionala bultzatzen, izaera soziokulturaleko eta asistentzialeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen, eta elkartasuna eta interkooperazioa bultzatzen, bai eta ikerketa eta garapena bultzatzen ere, jarduera berriak zein interes bereziko proiektuak babesten dituzten ekimenen alde eginda.

Danobat hasieratik egon da bereziki sentsibilizatuta euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Udalerrian garatzen diren hainbat ekimen laguntzen parte hartzen dugu, eta ekimen horien sustatzaileak ere bagara.

Gaur egun Danobatek euskara planak martxan ditu, euskararen erabilera areagotzeko, langileen motibazioan eragiteko eta haien euskara ezagutza handitzeko.

### **14. KONFIDENTZIALTASUNA**

Danobat Koop. E.ko pertsona garrantzitsu orok ziurtatu behar du, ahalik eta konfidentzialtasun handienarekin, bere jardueretan kudeatzen duen informazio garrantzitsu oro, bai barruan, bai kanpoan.

Danobat Koop. E.ren ordezkaritza guztiek, aplikatu beharreko datu babesari buruzko legeria betez, beren enplegatuekin edo hirugarren alderdiekin zerikusia duen informazio oro babesteko konpromisoa dute.

Danobat Koop. E.ko edozein pertsona garrantzitsuk hirugarren alderdiekin informazio konfidentziala partekatu behar badu, zuzenean edo zeharka, bere arduradunaren baimena behar du.

Halaber, bi aldeek honako dokumentu hauek irakurri eta sinatuko dituzte:

- Lan kontratuari buruzko datuen babesa.
- Konfidentzialtasunari eta baliabide informatikoen erabilerari buruzko arauak.
- Konfidentzialtasunaren, jabetza industrial eta intelektualaren, lehiarik ezaren, erantzukizunaren eta informazio sistemen erabilera egokiaren gaineko arauak.

### **15. DIZIPLINA ARAUBIDEA**

Danobat Koop. E.ko pertsonak kode honetako artikuluren bat betetzen ez badute, zehapena ezarriko zaie, kooperatibaren barne araudian ezarritakoaren arabera.

